Los requisitos son simples: que la reunión propuesta sea de ámbito no local, con un número mínimo de doscientas personas y una duración de dos o más días. Se establecen tres modalidades: candidaturas para congresos ya en marcha –nacionales o internacionales– o para la primera edición de un congreso nuevo. En cualquier caso, uno de los criterios de selección es que el congreso tenga relevancia para Donostia y Gipuzkoa. También se tiene en cuenta su impacto económico, su notoriedad y capacidad para transmitir conocimiento.

Las asociaciones médicas y sanitarias premiadas

Asociación premiada	Congreso	Persona que recogió el premio
Asociación de Hospitalización a Domicilio del Hospital Donostia	Congreso Nacional de Hospitalización a Domicilio (11-14 de junio 08)	Dra. Carmen Garde
Sociedad Española de Nefrología	XXXVIII Congreso Nacional de Nefrología (4-7 de octubre 08)	Dr. Fernando Vidaur
Sociedad Española de Enfermería Nefrológica	XXXIII Congreso Nacional de Enfermería Nefrológica (8-11 de octubre 08)	Doña Coro Melero
Asociación Española de Terapeutas de Autismo	"Comprometidos con el Futuro / 25 años de AETAPI" (13-14 de noviembre 08)	Don Agustín Illera
Sociedad Española de Neumología Pediátrica	XXXIV Congreso Nacional de la SENP (mayo 2012)	Dr. Javier Korta Murua
Sociedad Española de Cirugía Ocular Implanto-Refractiva	24 Congreso SECOIR (20-23 mayo 09)	Dr. Javier Mendicute
Sociedad de Fisioterapia en Pelviperineología (SEFIP)	Sociedad de Fisioterapia en Pelviperineología (SEFIP) (11-14 octubre 07)	Dr. José Miguel Amóstegui

Ospitaleko 42 lagunek euskaraz lan egiteko trebatzeari ekin diote azken hilabeteotan



42 empleados bilingües del Hospital Donostia, titulares de puestos prioritarios en el plan de normalización lingüística, han recibido estos últimos meses una formación específica dirigida a desarrollar su trabajo asistencial también en euskera: son los llamados cursos de adiestramiento para el trabajo bilingüe, primordiales de cara introducir y normalizar el uso del euskera en las tareas diarias, y que paulatinamente se irán ofertando a casi todo el personal bilingüe del hospital.

Apiriletik ekainera bitartean, Donostia Ospitaleko 42 langilek jardun dute ospitalean antolatutako euskarazko trebakuntza ikastaroetan. Saio horietan, paziente eta erabiltzaileei euskarazko zerbitzua ziurtatu behar dieten enplegatu elebidunek –hau da, euskararen normalizazio planaren arabera lehentasunezko lanpostua dutenek– prestakuntza berezia jaso dute, eguneroko lana euskaraz ere modu natural eta erosoan egin ahal izateko. Trebakuntzaren helburua, beraz, ez da euskara ikastea, ezpada enplegatu euskaldunei euskaraz lan egiteko laguntza eta baliabide-

ak eskaintzea, arian-arian beraien lanpostu eta unitateetan euskararen benetako normalizazioa lortze aldera. Guztira sei trebakuntza ikastaro abiarazi dira aurtengo. Seietatik bost ospitalearen euskara planak lehentasunezkoztat jotzen dituen artatze eta informazio unitateetako enplegatuentzat eratu dira. Kontsultetako harreretako, ospitaleratzeako onarpenetako, telefonoguneko, PEAZeko eta gizarte laguntzaileen zerbitzuko langileek osatu dituzte bost taldeok; 36 lagun guztira. Enplegatu horiei lanpostuaren hizkuntz eskakizuna egiaztatuta edo

bestela HABEren 9. maila gaindituta edukitzea eskatu zaie. Halaber, euskaldun zaharrek ere ikastaroan parte hartu ahal izan dute, euskara planeko ahozko neurri eta irizpideak betetzeko konpromisoa hartu ondoren. Ikastarook ospitalean burutu dira, zenbait kasutan unitatean bertan, eta 50na orduko iraupena izan dute. Donostiako Ilazki euskaltegiko hizkuntz teknikariek programatu eta bideratu dituzte saioak, euskara planaren arduradunen irizpideei jarraituta. Seigarren ikastaroari dagokionez, berriz, aurreko bi urteetan eginiko trebakuntza ikastaroen segida izan da. Euskarazko zerbitzua bermatu behar duten administrazio-lanpostuen titularrei begira antolatu da. Hizkuntz eskakizuna egiaztatuta daukaten ospitaleko sei langilek hartu dute parte, Gipuzkoako beste zerbitzu erakunde batzuetako hamar lagunekin bate-

ra. Ikastaroak 30 ordu iraun du, Elhuyar fundazioak gidatuta.

Trebakuntza saioetan honako arlo hauek landu dira nagusiki:

- ✓ Pazienteekiko ahozko harremanetan normalean erabiltzen diren esaldi eta esakuneak.
- ✓ Paziente eta erabiltzaileei ematen zaizkien agirien euskarazko bertsioak.
- ✓ Unitatearen lan esparruko terminologia.
- ✓ Lanean euskara –eta euskara zuzena– erabiltzeko tresnak: gramatika arauak, hiztegi elektronikoak, zuzentzaile ortografikoak, idazketa liburuak...
- ✓ Ospitalearen euskara planeko hizkuntz irizpideak ezaugaritzea eta betetzea: pertsonal euskaldunaren beharrezko identifikazioa; telefonoz erantzutean eta pazienteak aurrez aurre artatzean erabili beharreko lehenengo hitzak; hizkuntza ofizialen erabilera megafonian eta erantzungailuetan; ospitalearen itzulpen protokoloa...
- ✓ Enplegatu euskaldunen motibazioa, beldurrak eta konplexuak gainditu eta bezeroekin zein lankideekin euskaraz mintza daitezen.

Bistan denez, euskaraz trebatzeko saioak bitarteko praktikoa eta eraginkorra izan daitezke lanean euskara erabili eta normalizatzeko. 2006an hasita, dagoeneko ospitaleko 50 enplegatu ekin diote euskaraz trebatzeari, eta aurrerantzean ere eskaintza ospitaleko langile elebidun guztiei zabalduko zaie pixkanaka.

Gontzal Lopez
Donostia Ospitalearen euskara
planaren arduraduna

Donostia Ospitaleak bat egiten du landare-hondakinak konpostatzeko kanpainarekin

Ekainaren 4an Amaran landare-zabor organikoak jasotzen hasi ziren edukiontzi marroi giltzadun batzuetan. Udala akordio batera iritsi da Donostia Ospitalearekin eta Merkabugatirekin, hondakin-sortzaile handiak biak ere, ekimen horrekin bat egin dezaten. Kanpaina horri esker hondakindegira hilean 100 tona zabor gutxiago eramateaz gainera, 20 tona konpost egingo dira epealdi berean.

Gipuzkoako Hondakinen Kontsurtzioak jarriko du martxan esperientzia pilotu hori Donostiako Udalarekin batera, eta Amarako bizilagunetz gainera, Aretxabaleta, Azpeitia, Azkoitia, Zarautz eta Zumaiko biztanleak inplikatu ditu. Guztira 5.000 familia izango dira —2.700 Donostiako auzoan— beren sukaldatu gabeko landare-hondakinak kolore marroiko edukiontzi batzuetan jarriko dituztenak. Ontzi horiek giltza beharko dute irekitzeko, eta kalean egongo dira jarrita. Hondakin organiko birziklagarriak hondakindegira botatzen ez jarraitzea da helburua. Horretarako konpostatzeko planta bat jarri da Lapatzen, eta hurrengo egunetan hasiko da funtzionatzen.

Bi enpresa handi horiek hilean 45.000 eta 5.850 kilo landare-zabor kuzinatu gabea sortzen dituzte, hurrenez hurren, hau da, 610 tona zabor urtean. Eta horren antzeko kopurua da esperientzia honetara apuntatu diren Amarako 2.700 familiak sortuko luketen zaborra —55.800 kg/hil, hau da, 669 tona urtean—. Gipuzkoako Hiri Hondakinen Kudeaketako Oso-ko Planaren arabera (GHH-KOP), 100 kilo materia organikorekin 20 bat kilo konpost egingo dira, eta, beraz, esaten

ari gara Amarako bizilagunek eta bi ekoizle handi horiek 1.279 tona zabor birziklagarri utziko dituztela hondakindegira eraman gabe, eta 255 tona inguru konpost sortuko dutela. Zifra horiek ekimenaren lehen



fasekoak bakarrik dira —lehen sei hilabetetakoak—, sukaldatu gabeko landare-hondakinak bakarrik jasoko baitira, eta baita ere, atzo iragarri zutenek, «kafe-hondarrak, kortxoak, arrautza-azalak, ogia eta kartoi zikinak edo bustiak». Hondakin horiek konpostari ez diote kalitaterik kenduko, baizik eta, areago, lagundu egingo diote, batez ere kartoiak, birziklatze-prozesuaren «material egituratzaile» gisa.

Sei hilabete barru era guztietako materia organikoa jasotzen hasiko gara edukiontzi marroi berrietan, landareena nahiz animaliena, sukaldatu edo sukaldatu gabea.

118 izango dira Ernest Lluch Zentroan emango zaien presakuntza-hitzaldietara joan beharko duten Ospitaleko langileak: osasun-hiriko kafetegian eta jatetxean lan egiten duten txanda guztietako langileak, hain zuzen ere.

Mikel Agirrek, Donostia Ospitaleko kudeaketa ekonomikoaren zuzendariak, atzo pre-


tsaurreko batean esan zuen Udalak esperientzia horretan parte hartzeko aukera eskaini orduko, baiezkoa eman zutela inolako zalantzarik gabe, beraien ere ingurumenari buruzko ziurtagiri bat lortzeko pro-

zesuan daudenez, atxikipen horrek lagundu egingo baitie abal hori lortzen. Agirrek esan zuen lehenengo fase honetan sortzea pentsatzen diren hileko bost tona hondakin organikoak asko haziko direla gero, sukaldatutako hondakin organikoak ere esperientzian sartzen hasten direnean.

III. Joanes Etxeberri saria

Dagoeneko martxan da III. Joanes Etxeberri saria. Aurtengo hiru garren edizioa da, eta deialdiaren oinarriak aldikariari erantsitako triptikoa ikus daitezke. Lanak aurkezteko epea 2008ko urriaren 20an bukatuko da. Euskara Batzordeak lerro hauen bidez ospitaleko langile guztiak (mediku egoiliarrek barne) animatu nahi ditu sarira aurkezteko.

2007ko Memoria




Ale honekin batera 2007. urteari buruzko datuak jasotzen dituen memoriaren aurrerapeana atxiki da. Behin betiko memoria aurki argitaratuko da, eta horrekin batera datu zehatzak jasotzen dituen interakziozko Cda banatuko da.

Ginekologiako saio klinikoak

Ginekologia eta Obstetriziako Saio Klinikoei buruzko liburua hiru garren edizioa argitaratu berri da. Koordinatzailea María Lure, zerbitzu horretako mediku adjuntua, izan da, eta A. Murgiondoren, hiru garren mailako egoiliarren, laguntza izan du.

Liburua ospitaleko Komunikazio Unitateak editatu du eta bertan saiorik garrantzitsuenak jaso dira (2006 eta 2007ko lanak), ginekologia arloan ekarpen handia ekarriko dutenak.



Euskal Herriko Erizaintzako VI. Jardunaldiak

Gabriel Inclán Osasun sailburuak Euskal Herriko Erizaintzako VI. Jardunaldiak inauguratu zituen joan den maiatzaren 21ean, bi urtez behin antolatzen baititu sail horrek. Izena eman zuten osasun munduko bostehunetik gora profesionalek (gehienak emakumezkoak) egun horietan Kursaalaren aukera ederra izan zuten beren ezagutzak egune-

ratu eta hainbat gairen inguruan batera-jartze bat egiteko. Inaugurazioko ekitaldian Inclán-ek erizaintza bizitzen ari den «aldaketa-une garrantzitsua» aipatu zuen; espezialitateen garapena eta Europako goi-mailako ikasketekin bateratu beharra horren adierazgarri. Erronka horien aurrean, berrikuntzaren aldeko apustua egin zuen sailburuak. «Ez naiz aurrerapen zientifikoei eta informazioko eta komunikazioko teknologiei buruz ari, horiek ontzat ematen baitira. Orain, areago, zeraz ari naiz, laguntza emateko modua berritzen inbertitzeaz, laguntzaren efikazia, eskuragarritasuna eta azkartasuna bermatuz» esan zuen. Inclán-en ustez, «Gaixotasun akutuen sendatzeko pentsatuta dauden sistemak birpentsatu egin behar dira, gaixotasun kronikoak zaintzera bideratzeko helburuarekin».

Mejoras en el Salón de Actos

El salón de actos del Hospital Donostia presenta una nueva imagen después de que finalizasen las obras de modernización que han durado dos meses. Este remodelado salón cuenta con importantes mejoras en aparataje técnico y un aspecto más moderno. Su puesta de largo coincidió con las jornadas de la Comisión de Infecciones.

Día de la Enfermería



Con motivo del Día de la Enfermería, se celebró en el salón de actos una mesa redonda en la que intervinieron Mikel Gotzon Casas, letrado de Vicepresidencia de Gobierno Vasco; Susana López Altuna, Letrada-subdirectora de la Asesoría Jurídica de Osakidetza y profesora de la escuela de enfermería de Txagorritxu; Fernando Alcantari-

lla, Magistrado-Juez de Victoria-Gasteiz; José Manuel Grao, Magistrado-Juez de San Sebastián y Salvador Asenjo, abogado de la Asociación para la Defensa del Paciente. Intervino como moderador Máximo Goikoetxea, Gerente del hospital y presentó el acto la Directora de Enfermería María Jesús Barandiarán.

Euskara egiaztagiria baliokidetzeko dekretua

Hainbat lanpostutan jarduteko euskara-egiaztagiria behar dira. Milaka herritar dira halako edo bestelako euskara-maila egiaztatze aldera azterketak egin dituztenak edo egiteko prestatzen ari direnak.

Eusko Jaurlaritzaren Gobernu Batzordeak onartutako Dekretua apirilaren 16an sartu da indarrean, alegia, hainbat euskara-egiaztagiri konbalidatu edo baliokidetu dituen Dekretua, betiere Europako Erreferentzia Markoak (http://www.habe.org/pdf/erreferentzi_markoa.pdf) eza-rritako ikasmailak ardatz hartuta.

Orain arte ez zegoen halakorik. Agiri batzuen artean bakarrik zeuden baliokidetzak aitortuta; beraz, kasu gehienetan, egiaztagiri bakoitza lortzeko berariaz prestatutako azterketak egin behar ziren. 2006an hasitako prozesuaren fase nagusia bukatu da ordea, eta egiaztagiri gehienak, Europako Erreferentzia Markoari segituz, baliokidetu dituzte. Honako hau da, Europako ikasmailak ardatz hartuta, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioan dauden euskara-egiaztagiriaren baliokidetzeta-taula:

Europako Errefer. Markoa	HAEE - IVAP	HABE	OSAKIDETZA	ERTZAINZA	HEZKUNTZA
B1	1. HE	1. maila	1. HE		
B2	2. HE	2. maila	2. HE	1. HE	
C1	3. HE	3. maila	3. HE	2. HE	EGA
C2	4. HE	4. maila	4. HE		

XIII. Idazlan-lehiaketa

Liburuaren Eguna dela-eta, XIII. Idazlan-lehiaketaren sariak banatu ziren Ama-haurrentzako eraineko laugarren solairuko Zibergelara. *Nola ikusten duzu ospitalea?* Izan zen proposatutako gaia eta azken hilabeteetan ospitaleratutako haurrek beren ikuspegia emateko parada izan zuten. Urteen poderioz, lehiaketa hau sendotuz joan da ospitalean eta arrakasta handia izaten du ume eta bere senideen artean, ahaztu gabe hedabideek egiten dioten harrera ona. Sari-banaketara Alex Ubago abeslaria etorri zen eta Margarito pailazoaren laguntza izan zuen.

Hobetze-taldeen analisiak eta proposamenak (2007/08)

2005. urtean Donostia Ospitaleko profesionalen lehen gogobetetze-inkesta egin zen, Esperimentzia onuragarria izanik, iaz prozesu berri bati eman zitzaion hasiera eta horren emaitza izan dira aurtien Pertsonaleko Zuzendaritzak koordinaturik, osatutako zenbait hobetze-talde.

Guztira, ospitaleko jarduera eta kategoria guztietako ehun profesional baino gehiago izan dira parte hartu dutenak. Etapa honen berrikuntza zenbait talde berri sortzea izan da, hala nola, arlo kirurgikoa, mantentze-lanak eta zerbitzu orokorrak. Bereizketa hau egin zen zenbait taldetako errealitatek gertuago zeuden eta zehatzagoak ziren planteamenduak lortzearen.

Taldeek ondo zehaztutako zortzi arlotan lan egin zuten:

- Segurtasuna eta Lan-osasuna
- Lan-baldintzak
- Prestakuntza
- Lanpostuarekin identifikatzea eta Lanbide-garapena
- Aitorpena
- Ordainsariak
- Parte-hartzea
- Komunikazioa.

Segurtasuna eta Lan-osasuna

Azken gogobetetze-inkestan, Segurtasun eta Lan-osasuneko faktorea arlotzat hartu da, eta garatzeko proposatutako ekintzen artean hauek aipatu behar ditugu: Prebentzio eta Laneko arriskuei buruzko plana jarraipena, Osasun-arazoengatik Mugikortasun Akordio berria ezartzea eta Laneko baldintza fisikoetan egin daitezkeen hobekuntzei buruzko ikerketak egitea.

Lan-baldintzak

Arlo honetan bi ekintza nagusi proposatu dira; batetik, familia eta lana bateratze aldera, ordutegi-malgutasunari zuzenduta-



ko proposamenak laguntzeko protokoloa egitea, eta, bestetik, aldi baterako kontratazioarako protokolo berria lantzea.

Prestakuntza

Azken urteotan profesionalen prestakuntzak garrantzi handia hartu du, eta hobetze-taldeek aurkeztutako proposamenen artean ekintza hauek aurreikusi dira: Prestakuntza-plana lantzea eta unitateentzako Harre-ra-plana egitea.

Bestalde, zuzendari gerenteak bultzaturik, gure ospitalean Sakontzen Plana garatzen ari da, eta helburua prestakuntza-arloa berritu eta indartuko duten prestakuntza-ekintza berri-tzaileak bateratzea da.

Hauek dira, besteak beste, garatzen ari diren ekintzak:

- Lidergo-proiektua
- Ezagutzaren kudeaketari buruzko ikastaroa
- Harrera-plana unitateetan

Lanpostuarekin identifikatzea eta Lanbide-garapena

Arlo honetan proposaturiko ekintzak gure erakundean dauden unitateetako arduradunen lanbide-garapenari daude zuzenduta, Lidergoaren Proiektua barne.

Halaber, taldeak profesionalak betetzen duen lanpostuan lanbide-garapenari zuzendutako ekintzak ezarri ditu, eta zenbait kategoriatan goi-mailako beste lanpostuetara aldi baterako igotzeko dagoen aukerari da-

gokionez, dagoeneko dauden sarbide-sistemetako komunikazioa eta informazioa hobetzeko proposamena egin du.

Aitorpena

Aitorpenaren arloan honakoak hartu dira aintzat: ondo egingako lanarekin zerikusia duten ekintzak eta aitorpena erakundean bertan. Horretarako, hiru ekintza nagusi proposatu dira: erreferenteak diren zerbitzuei eta une jakin batzuetan zenbait zerbitzuri eskerrak emateko protokoloa egitea, erizaintzako kudeaketa-eredu berria sortzea eta profesionalen lege-laguntzari buruzko komunikazio-plana lantzea.

Ordainsariak

Ordainsariei dagokienez, gure profesionalen ordainsarietan eragina duten faktoreak sartu dira, hala nola, diplomadun sanitarioen lanbide-garapena, pertsonal ez-finkoari antzinate-tasun-osagarria aitortzea eta konpentsazio-formula berriak aztertzea kudeaketa klinikoko unitateek betetako helburuen-gatik.

Parte-hartzea

Esparru honetan unitateetan dizi-plina anitzeko taldeak osa-

tzea proposatu zen antolatze- eta asistentzia-hobekuntzarako. Eskakizun hori ere 2005ean hobetze-taldeek egingo dako lanean antzeman zen, Fase honetan zenbait talde eratzea proposatzen da, dagoeneko horietako batzuk osatuta daude eta proposatutako hobekuntzetan ari dira lanean: ohekudeaketa hobetzea, alde kirurgikoko talde antolatzailea, unitate eta zerbitzu zentralen arteko hobetze-taldeak, erizaintza eta mantentze-lanetako zerbitzuaren arteko lantaldea, etab.

Komunikazioa

Komunikazio arloak honakoak hartzen ditu bere baitan: lana gauzatzeko informazioarekin zerikusia duten gaiak, lanean eragina izan dezaketen erabakiei buruzko informazioa, hobetzeko iradokizunak entzutea eta kontuan izatea, informazio-sistemak edo erakundearen ataria erabiltzea, etab.

Ekintza hauek proposatu dira:

- e-Osabide proiektua ezartzea.
- Digitalizatutako irudi erradiologikoa.
- Ez-ohiko kanaletatik datorren informazioa komunikatzeko protokoloak egitea.

Presencia en los cursos de la UPV



El Dr. Julio Arrizabalaga, Coordinador de Investigación del hospital ha dirigido el curso "Futuro de la investigación en el ámbito biosa-

nitario" que se ha celebrado dentro de los cursos europeos y de verano de la UPV. La conferencia inaugural la pronunció el Consejero de Sanidad, Gabriel María Inclán y también intervinieron otros médicos de nuestro centro como Adolfo López de Munain y Luis Bujanda. La presencia de profesionales del hospital en los cursos de la UPV confirma el prestigio alcanzado por los investigadores de nuestro centro.

Atako haran misterioitsua



Diversión y ejercicio. Ese puede ser el lema de una nueva actividad que proponemos en esta revista para quienes quieran practicar un deporte saludable y pasárselo bien. En esta ocasión, Santiago Larburu, del Servicio de Cirugía General, y miembro de la Comisión de Euskera, junto a Fernando de la Caba, han trazado un recorrido por el Valle de Ata. Quienes quieran conocer más detalles y datos del recorrido pueden consultar en la página web de ABIAN (http://ehdo/c_euskera/html/index.asp?idm=e).



Madotzetik abiatuta, eta arin ibiliz gero, Aralarreko San Migelera hiru ordutan iritsi daiteke. Atako harana zeharkatzen duen antzinako erromesbidea da, eta puntu horretan elkartzen dira Larraungo beste herri batzuetatik zetozen garai bateko bideak, esaterako, Baraibar, Iribas, Lekunberri, Oderitz eta Astitz. Atako harana Aralar mendilerroaren ekialdean dago kokatuta, eta urteko sasoiaren arabera, erakusten duen edertasuna harri-

garria bada ere, antzinako kondaira eta istorioekin areagotu egiten da.

Neguan iraupen-eskizale ugari ibiltzen da, eta monumentu megalitikoak nonahi ikus daitezke. Hauexek dira aipagarrienak: Erroldan Harria eta Seakoain I eta II dolmenak.

Ibilbidea

Ibilbidea Madotzen (0', 745m) hasten da. Elizatik errepidea zeharkatzen duen mendi-bide bat abiatzen da. Pista horrek

bat-batean eskuinean behera egiten du, eta jarraituz gero, goraka jarraitzen du, poliki-poliki Atako haranean sartuz. Igo ahala, eta eskuinaldera hormigoizko pistak lekua uzten dio zelai berdez inguratutako bide eder bati. Harana estutu egiten da eta goraka egiten du. Euria eginez gero, gure botak lokatzez beteko dira, baina hori ez da jarraitzeko eragozpenik izango. Bi alanbre-hesi igaro ondoren, eta galtzeko arriskurik gabe, zelai handiez jositako zona ireki batera iritsiko gara (1 ordu, 930 m). Jarraitu Erroldan Harriaren ondotik pasatzeko, derrigor egin beharreko geldialdia baita harria ukitzeko eta kondaira irakurtzeko. Urrutira Artxuetako gailurra ikus daiteke Aralarreko San Migeleko antena ezagunekin. Nahi adina jarrai dezakegu, gure oinek uzten diguten bitartean, eta hamaiketako egiteko aprobeitza dezakegu. Derrigor eraman beharrekoak: Botak, hotzerako eta uretako txamarra, jateko zer edo zer eta ura.

Fitxa teknikoa

Irteera eta helduera:

Madotz (745 m.)

Zailtasuna: Baxua

Desnibela: gutxi gorabehera 200 m

Denbora: joan-etorria 3 ordu

MADOTZ: 29 biztanle, altituddea 745 m

Iristeko: Donostiatik Lekunberriera Iruñeko autobiatik. Hartu Aralarreko San Migelera doan errepidea; behin Zuarrarate portua igaroz gero, eta 300 metrotara, Madotzera iristen den errepidea hasten da.

Mikel Zubeldiak menderatu du Akonkaguaren gailurra



Gure lankidea den Mikel Zubeldiak Akonkaguaren gailurra egin du orain berriro, euskal mendizale ezagunenetako batzuek, hala Xabier Errok (mendi horren gailurra 28 aldiz egin-dakoak) edo Ignacio Llorentek (gailurra egin zuen lehenengo euskaldunak) parte hartu zuten espedizio batean.

Gailur legendario horri erasotzen zion bigarren aldia zen Zubeldiarentzat. Lehenengoan 50 metro eskasera geratu zen, baina gure erredakzioari azaldu zionez, "oraingoan esperientzia handiko lagunak izateko zortea izan nuen, eta gainera oso eguraldi ona egin zigun". Bere esanetan, oso gailur zaila da bere altitudearengatik (7.000 metro ia), eta horrek esan nahi du prestaketa fisikoa izateaz gainera psikologikoki ere prestatu

beharra dagoela hari baldintza egokitan erasotzeko.

Espedizio horrek berme guztiak izan zituen, era honetako antolaketa ohikoa izaten denez, eta Erro eten gabe kontaktuan egon zen gorputza altuerara nola egokitzen den aztertzen ari den Hondarribiko talde mediko batekin. Hala, espedizio kideetako bat ganbera hiperbariko batean entrenatu zen lehenengo, gero entrenamendu berezi hori egin ez zuten beste mendizaleekin egon zitezkeen diferentziak aztertu ahal izateko.

Gure ospitaleko mantentze-zerbitzuko kidea da Mikel Zubeldia, eta, bidali digun argazkian ikus daitekeenez, Osakidetza logotipoa jarri zuen "gailur-gailurrean".

Ibilaldi osasungarria Donostian zehar

Biztanleen artean erregularitasunez ibiltzeko ohitura bultzatze aldera –ekimen hau osasungarria da bihotzerako eta OMEK gomendatzen du–, "Ibilaldi osasungarria" antolatu zen Donostian maiatzean *En Marcha*, Kirol eta Osasunari buruzko Azokaren barruan.

2 kontrol jarri ziren; bata Aieteko Jauregian eta bestea Urgulleko Haur-liburutegian. Parte-hartzaileek kontrol horietatik pasa behar zuten ibilaldia hasi aurretik jasotako txartela erakusteko eta zigilua jartzeko. Ibilaldia bukatu ostean, eta txartela kontrolatuko zigiluekin ondo beteta aurkeztu ondoren, parte-hartzaile guztiei podometro bana oparitu zitzaien.

La Salle-Berrozpe ikastetxeko ikasleen bisita



Ospitaleko Euskara Batzordeak euskararen erabilera bultzatzeko antolatutako ekintzen artean, Andoaingo La Salle-Berrozpe ikastetxeko ikasle-talde batek Donostia Ospitalea gertutik ezagutzeko aukera izan zuen.

Euskara Batzordeko kideek eta Komunikazio Unitatekoek hartu zituzten ikasleak, eta ekitaldi-aretoan aurkezpina egin

ondoren, zentroko zenbait zerbitzu ikusteari ekin zioten, besteak beste, Arantzazu eraikineko Kardiologia eta Endokrinologia Zerbitzua; Bloke Kirurgikoa Gipuzkoa eraikinean eta eskola Ama-haurrentzako eraikinean. Taldeak asko gozatu zuen bisitarekin eta biziki eskertu zuen ospitaleko langileek emandako tratua.

Homenaje a los jubilados




Un año más los profesionales que se jubilaron a lo largo de 2007 fueron homenajeados en un acto que tuvo lugar el viernes 11 de enero, tal y como se aprecia en la foto-

grafía de Pedro Etxebeste, en la sala polivalente del Edificio de Servicios Generales un acto en honor de los trabajadores del Hospital jubilados durante el año 2007.

Se sitúa en el norte de Burgos, ro

El Valle de Mena, naturaleza desbordante



Askorentzat Menako harana erabat ezezaguna da, baina historiaren epe luze bat partekatu du bere auzokoekin autrigoiien garaitik –lehen milurtekoaren aurreko mendeetan– gerra karlistetara. Burgos-eko eskualde hau Kantabriako, Bizkaiko eta Arabako lurraldeen artean dago kokatuta, ingurune pribilegiatu batean, eta eskaintzen dituen aukera zoragarrien artean hauexek aipa daitezke: natura, artea, kirola eta gastronomia.

Enmarcado entre Bizkaia, Álava y Cantabria, el Valle de Mena se localiza al norte de Burgos, en la comarca de las Merindades. En un entorno en el que domina el verde de su foresta, 60 pueblos forman un valle de una población que no llega a los 4.000 habitantes. La cercanía de las estribaciones de la Cordillera Cantábrica dan a toda la zona un encanto especial y también un valor ecológico singular. El buen estado de conservación de los bosques meneses

ha permitido su inclusión en la Red Natura 2000. En este valle, al abrigo de las cadenas montañosas de La Peña y Ordunte, se crea una curiosa armonía entre el Atlántico y el Mediterráneo, de manera que hayas y robles, colonias de tejos y acebos se entrecrucen y convivan de manera natural.

Huellas del pasado remoto

En este entorno se han podido conservar especies autóctonas como las vacas monchinas o los caballos losinos. Pero es la botánica la reina del lugar y un paraíso para los amantes de los hongos y setas, amén de refugio para corzos y jabalíes. No es por tanto extraño que el ser humano haya pisado estas tierras desde tiempos lejanos. La existencia de sepulcros de corredor, dólmenes y cámaras bajo túmulos son algunas de

las huellas que dejaron. Pero quizá el yacimiento arqueológico máspreciado sea el castro de la Edad del Hierro ubicado en las inmediaciones de la localidad de Opio, en el monte Socueto, que fue habitado por los autrigones, pueblo de origen indoeuropeo que se estableció por la costa cantábrica y penetró por la comarca de la Bureba, ocupando espacios como el Valle de Mena.

Múltiples opciones

No faltan tampoco restos romanos y de la Edad Media,

deado de Cantabria, Álava y Bizkaia

nte al abrigo de la Cordillera Cantábrica

como las casas torres o monasterios como el de Taranco cuya acta fundacional se remonta al año 800. Pero es el Camino de Santiago, en este caso un ruta secundaria, el que ha dejado su impronta con monasterios como Oña, Tabiega o San Millán de la Cogolla, además de un románico que tiene sus principales exponentes en las magníficas iglesias de Santa María de Siones y San Lorenzo de Vallejo, sin olvidar los tímpanos de El Vigo, Bortedo y San Pelayo; el relieve de la Adoración de los Reyes en Villasana o la tapa del sarcófago de Vivanco.

Por desgracia, la historia más reciente dejó una huella más dolorosa: con la guerra de la independencia primero y las carlistadas después. Afortunadamente son ya apenas recuerdos borrosos y superados por una comarca que ha sabido crecer y modernizarse sin perder todo su encanto natural. Además de poder disfrutar de la naturaleza, o el románico, este valle ofrece inigualables posibilidades para hacer senderismo, paseos a caballo o múltiples posibilidades deportivas.

Los ayuntamientos colaboran y promueven también actividades culturales a lo largo del año. La zona cuenta con muchos y buenos alojamientos y restaurantes. Lo mejor es informarse en la oficina de turismo del Valle de Mena en la página web www.turismo-valledemena.es

Fotos cedidas por la Oficina de Turismo del Valle de Mena



Gastronomía, mucho y bueno

El Valle de Mena ha sabido aprovechar sus recursos naturales para lograr una gastronomía potente, succulenta, donde los platos de cuchara son su máxima expresión. Lógicamente, por su condición burgalesa parece obligado hablar del cordero. Y es cierto, tanto en asado como en guisos, pero la cocina menesa va mucho más allá.

Para empezar, sus verduras y los pucheros. Ya hemos mencionado los platos de cuchara, pero es de destacar que en regiones como ésta, sin desprestigiar las técnicas modernas y los avances en el conocimiento alimentario, todavía se mantenga una tradición en la que legumbres, verduras y carne sirvan para preparar unos apetitosos potajes.

En esta línea, el puchero menés o las patatas a la menesa son ejemplos de recetas tradicionales que renovadas gracias a aligerar sus salsas y evitar grasas no deseables, mantienen el sabor de antaño con respeto total a las normas cardiovasculares.

La cercanía y relación de siglos con los pueblos cantábricos les permiten conocer y tratar con delicadeza los pescados que regala la mar, pero también los propios, como las truchas del Cadagua. Y todo ello sin perder de vista algunos tesoros como los hongos y setas, además de la caza.

Sanidad pone en marcha un programa de detección precoz del cáncer colorrectal

Urtero, 1.600 pertsona baino gehiagori diagnostikatzeko zaio kolon eta ondesteko minbizia Euskadin. Horietatik, 1.000 gizonetakoak dira eta 600 emakumeak. Hori da tumorarik ohikoena jendearen artean; emakumeen artean intzidentzia gehien duen bigarrena da, bularrekoaren ondoren, eta hiru-garrena gizonetakoengan, biriketakoaren eta prostatakoaren ondoren.

Egoera horren aurrean, Gabriel Inclán Iribar, Eusko Jaurlaritzako Osasun sailburuak joan den maiatzean aurkeztu zuen kolon eta ondesteko minbizia garaiz detektatzeko programa bat, esanez ezen "gure herrian osasun-arazo garrantzitsua dela". Sailburuak zifrak eman zituen: ia 2.000 gaixo ospitaleratzen dira urtero arrazoi horregatik, eta heriotza-tasak 32/100.000 da gizonen artean eta 13/100.000 emakumeen artean.

Kasuen % 80an, hesteetako polipo batetik sortzen da minbizi hori, gaiztotu egiten baita 10 urte arteko epe luze baten ondoren.

Sintoma nabarmenak sortzen dituen arazo oso fase aurreratuan aurkitu izaten da.

Eusko Jaurlaritzako osasun-arduradunak azaldu zuen, gainera, adina izaten dela arrisku-faktore garrantzitsuetako bat: 50 urtetik aurrera, hamar-kada bakoitzak bikoiztu egiten du kolon eta ondesteko minbi-ziaren intzidentzia.

Azkenaldian egin diren azterketek adierazten dute intzidentzia handiagotu egiten dutela obesitateak eta alkohol eta haragi gorri asko kontsumitzeak (Minbi-ziaren Ikerketarako Fundazioa 2007an egin-dako "Nutrizioa, jarduera fisi-koa eta minbi-ziaren preben-

El Consejero de Sanidad del Gobierno Vasco presentaba el pasado día 7 de mayo un programa de detección precoz del cáncer colorrectal en la Comunidad Autónoma del País Vasco, el tumor más frecuente en la población en general. Una de las diferencias con otros sistemas sanitarios es que no se va a realizar un estudio piloto dadas las evidencias científicas. El programa se dirige a todas las personas en edades comprendidas entre los 50 y los 69 años, que son los límites en los que los ensayos han demostrado mayor efectividad y consistirá en una prueba no invasiva que se realizará en el propio domicilio por medio de un kit que analiza muestras de sangre en heces

tzioa"ri buruzko txostena, argitalpen zientifiko nagusietan azaldu dena).

Gehienetan kasu bakanetan azaltzen da, alegia, ez da fami-liako aurrekaririk izaten (% 70). Garrantzitsuena, esan zuen Gabriel Inclán-ek, zera da "bost urtera hartutako bizirau-pena izugarri hobetzen da, diagnostikoa garaiz egiten bada". Aldiz, % 15ekoa baino ez da, diagnostikoa IV. fasean egiten denean (gaixotasuna fase aurreratuan dagoenean) baina % 75-90 arte iristen da diagnostikoa I-II faseetan egi-ten denean (fase goiztiarrak).

"Eboluzio moteleko prozesu bat da, esan zuen, oso aurrera joan den arte batere sintoma nabarmenik ematen ez duena, eta adinarekin oso erlazio estua duena; diagnostiko goiztiar batek asko hobetzen du pro-nostikoa. Ebidentzia zientifiko-aren azterketak ez du zalantza-rik uzten horri buruz. Murriz-keta bi modutara lor daiteke, eta bata zein bestea ez dira inola ere bateraezinak: batetik, aldagarriak diren arrisku-fakto-reen eta bizitza-estiloen gain

jardunez, eta bestetik, diagnos-tiko goiztiarra eginez, artean sintomarik ez duten pertsonen-gan, tratamendua gaixotasuna-ren hasierako faseetan egin ahal izateko".

Jarduera fisikoa eta dieta hobetzea

Lehenengo faktoreari dagokio-nez, ezaguna da Osasun Sailak jarduera fisikoa eta dieta osa-suntsua sustatzeko egiten duen ahalegin saiatua, baina diagnostiko goiztiarrari dago-kionez, komunitate-mailako balioa izango badu, xede-populazio guztiari proba diag-nostikoak egitea planteatu beharko da, eta populazio-baheketako programa orotan bezala, hori justifikatuko duten gutxieneko baldintza batzuk beharko dira.

Osasun Sailak espezifikoki izendatutako aditu-talde ba-tek egiaztatu du ebidentzia zientifikoak ondorioztatzen duela kolon eta ondesteko minbizia, benetan, osasun pu-blikoko arazo bat dela, eta horren prebentzioa efikaza de-la 50 urtetik gorako popul-a-

zioan baheketa egiten bada polipoak dituzten pertsonak garaiz identifikatu eta trata-tzeko, eta hautapen-baheke-tako probarekin eginkarietan ezkutatuta dagoen odola ze-hazten dela, eta horrekin, koloneko eta ondesteko kan-tzerraren heriotza-tasa % 15 eta % 33 artean murrizt daite-keela; horregatik erabaki da detekzio goiztiarreko progra-ma ezartzea.

Planteamendu horrek gure inguruko beste osasun-siste-ma batzuetan egiten ari dire-nekiko duen berrikuntzetako bat zera da, ez dela azterketa pilotu bat egingo, baizik eta, behin ebidentzia zientifikoa onartuz gero, pentsatu da badagoela aski argumentu programa hori EAE osoan ezartzeko, eginkarietako odola aztertzeko kit baten bidez etxean bertan egin daitezkeen proba ez-inbaditzaile batzue-kin.

Lehen fasean, 50etik 69 urte arteko 28.000 emakume eta gizoni luzatuko zaie progra-man parte hartzeko gonbida-pena, eta horietatik ia 16.000 Bizkaikoak izango dira, 8.000 baino zerbait gehiago Gipuz-koakoak eta 4.000 inguru Arabakoak.

Gipuzkoan Ekialde Eskualdeko udalerri hauetan egingo da: Pa-sai Donibane eta Zarautz; Osasun Sailburuak esan zue-nez, urtean 1.200 minbizi eta minbizi aurreko lesio diagnos-tikatuko dira modu goiztiarre-an; horrekin, noski, gora egin-go du Euskadin kolon eta ondesteko minbi-ziarekiko bizi-raupenaren eta sendatzeen kopuruak, eta hori da progra-maren azken helburua".